



felipe juaristi

iraganik  
gabe

erein

**iraganik gabe**

**felipe juaristi**

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu.

Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra  
(Centro Español de Derechos Reprográficos, [www.conlicencia.com](http://www.conlicencia.com);  
91 702 19 70 / 93 272 04 47).

*Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-laguntza jaso du.*

*1. edizioa: 2017ko otsailean*

Azalaren diseinua:

Iturri

Maketazioa:

Erein

© Felipe Juaristi

© EREIN. Donostia 2017

ISBN: 978-84-9109-163-9

L. G.: SS-214/2017

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300 F 943 218 311

e-mail: [erein@erein.eus](mailto:erein@erein.eus)

[www.erein.eus](http://www.erein.eus)    

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45 Zarautz

T 943 835 008 F 943 130 822

e-mail: [itxaropena@itxaropena.net](mailto:itxaropena@itxaropena.net)

[www.itxaropena.net](http://www.itxaropena.net)

iraganik gabe

felipe Juaristi



**B**elarria izan zen lehendabizi esnatu zena. Txori baten kanta iritsi zitzaion, baina zegoen tokitik ezin jakin zuen zer txori klase ote zen. Kantak bihotza alaitu zion.

Begiak ireki zituen, erabat zabaldu gabe. Zuritasunak hasieran min egin zion begietan; eragozpen desatsegina. Ezin zezakeen ezer gehiago zehaztu. Txori kantak lehengo urruntasunean segitzen zuen, airean zintzilik bezala. Burua soinua zetorren aldera eramaten saiatu zen. Oinazea etorri zitzaion lepo aldera, zerbaitek zizta egin izan balio bezala. Eskuin eskuaz hazka egiten saiatu zen, baina ezin izan zuen hartzik mugitu. Lotuta zegoen. Ezker eskua eraman zuen eskuin muturrera, zerk lotzen zuen jakiteko. Haragia zulatzen zion tutu bigun bat zela ohartu zen. Ezker eskuaz hazka egin zuen lepo aldean. Gorputza eskuin aldera eraman zuen. Minduta zuen saihets alde hura. Begiak itxi zituen.

Begiak ireki zituen. Argia irristatu zitzaion, aho biguna balitz bezala. Zuritasuna gorputz irekia zen,

bertan irentsi nahi zuena. Oinak mugitzen saiatu zen. Ez zuen lortu. Gogortuta zeudela jakin zuen. Behatzak mugitzen saiatu zen. Alferrikako ahalegina izan zitzaion. Bereak ez zirela ziruditen. Begiak itxi zituen berriro.

Txoria isilik geratu zen. Ezker eskuaz tutua askatzen hasi zen. Indar gehiago egin zuen, ia konortea galtzeraino. Halako batean lortu zuen tutua askatzea. Begiak ireki zituen.

Argiak itotzen zuen, beso estua balitz bezala. Eskuak aurpegira joan zitzaizkion. Aurpegia bigun eta minbera zuen, belarriak eta ahoa izan ezik. Belarriak hezeak zituen; ahoa, lehorra. Indarra egin behar izan zuen aurpegiko estalkia kentzeko. Lurrera bota zuen. Bat-batean, begiak itxi behar izan zituen.

Begiak ireki zituen. Ohe batean zegoela ohartu zen, ohe zuri eta altu batean. Lurrera begiratu zuen; bendak ikusi zituen. Gorputza agondu; eskuak oinetara eraman zituen. Oinak hotzak zeuden, oso hotzak. Begiak itxi zituen; begiak ireki zituen.

Ohitzen hasia zen argira. Ohearen eskuin aldean haga batetik zintzilik botila bat zegoen; eta botilari lotuta, berak askatu berri zuen tutua. Ohearen ertzean eseri zen, oin hutsak zabuka. Jauzi egin zuen lurrera eta ibiltzen hasi zen. Oinek ez zioten erantzun eta erori egin zen, muturrez aurrera.

Burua altxatu zuen. Jaiki eta ohearen ertzean eseri zen. Ingurura begiratu zuen. Hormak ez ziren zuriak. Nabaria zen hezetasunak gainetik bere

arrastoa utzia zuela. Aurrean plastikozko aulki bat zegoen eta ondoan armairua. Biak ziren berdeak eta zaharkituta zeuden. Aulkiaren gainean txarro bat ur zegoen, edalontziarekin batera. Biak ziren, txarroa eta edalontzia, berdeak eta plastikozkoak. Egarrria egin zitzaion. Jauzi egin zuen lurrera eta gorputza eraman zuen aulkiraino. Han pausatutakoan soilik askatu zuen eskuin eskua. Atsedena hartu zuen une batez. Gero, edan zuen, edatea hil edo bizikoa balitzaio bezala. Ase ondoren, eskuin aldera begiratu eta ate bat ikusi zuen. Eskuin eskua hormaraino eraman zuen, eta gero gorputz osoa. Bi eskuak paretari atxikita, pauso bat eman zuen ate aldera. Gero, beste bat. Atea ireki zuen; barrura sartu zen. Gela hartan komuna zegoen, zikin samarra; dutxa bat, lizundua; eta konketa, ilez josia. Usain lodia zebilen bazterretan, hegan bezala. Ispilua ere bazela ohartu zen. Herdoil pikorrak erakusten zituen, ertzetan. Makur eginda hurbildu zen, eskuak konketaren ertzean eta oinak zoruan tinko ipiniz. Burua altxatu zuen eta bere aurpegiari begiratu zion. Zauri-arrastoz josita zegoen, larruzko ibilbidean. Iturria ireki zuen, urari joaten utzi zion une batez.

Iturria itxi zuen. Berriro begiratu zion ispiluan azaltzen zen irudiari. Hark ez zion ezer esan. Berak ere ezin zion ezer esan hari. Ez zitzaion ezagun egiten, ezta ezezagun ere. Eskuak bustita zituen, tantak zerizkiola. Begira geratu zitzaien urak utzitako aztarna bustiei. Makurtuta, eskuak zoruan ipiniz, ia

arrastaka, komunera iritsi zen. Eseri zen gainean, estalkia irekita. Pijama jantzita zeramala ohartu zen. Urdinak ziren galtzak; eta urdina, jaka. Pijama-galtzak zikinak zeuden, orban horia zuten hanka artean. Usaina gero eta gogorragoa zen. Ahoa lehorra zuen oraindik. Adore hartu eta altxatu zen. Zutik egon zitekeela ikusi zuen, erori gabe. Konketaraino hurbildu zen, pauso laburrez, oinak arrastaka. Burua sartu zuen urpean. Ura edan zuen, esku barruetan hartuta, uholdeka. Bota behar izan zuen: ur gogorra zen; arrea kolorea eta ustel zaporea.

Iturria itxi zuen. Bere aurpegiari begiratu zion ispiluan, lasaixeago orain. Orbainak ikusi zituen, orbain lodiak begi eta belarri azpitan. Betileak goratuak ageri zitzaizkion, belarriak txikiak eta zorrotzak; begiak, handiak eta biribilak. Orbain meheak ere ikusi zituen, sudurraren bueltan. Ahoa hanpatuta ikusi zuen, eta masailak, beteago ageri zitzaizkion. Harrituta begiratu zion bere buruari. Hunkigarri egin zitzaion ilearen gorritasun mina. Ez zekien zer egiten zuen berak toki hartan, pijama zikina jantzita. Atea ireki zuen; lehengo gelan sartu zen. Zehatzago egin zitzaizkion espazio hartako luze-zabalak. Usain sarkor batez zegoen bustita.

Armairua zegoen aldera joan zen eta ireki zuen. Arasa batean tutu eta botila txiki asko zeudela ohartu zen. Bat ireki eta sudurrera ekarri zuen. Usain bortitza zen, pizgarria oso. Itxi eta lehengo tokian utzi zuen berriro. Armairuaren barruan, zintzilik, jaka



ilun bat zegoen, alkandora eta galtza zuriekin. Armairuko tiradera ireki zuen. Galtzontzilo eta kamiseta zuriak ikusi zituen, gerriko bat ere bai. Pijama urdina lurrera bota zuen. Pijamaren azpiko galtzontzilo urdinak ere zikinak zeuden. Haiek ere erantzi zituen. Trajea eta barruko arropa zuria hartu zituen eskuetan. Usaindu zituen, garbi-usain ona zuten. Lurrean utzi zituen, kontu handiz, aulkiko txarroa eta edalontzia. Aulkian eseri zen. Galtzontzilo eta kamiseta berriak jantzi zituen. Gero, galtzak. Ongi geratzen zitzaizkiola ohartu zen. Gerrikoarekin lotu zituen. Alkandora jantzi zuen gero; lasai antzean geratzen zitzaion. Botoiak lotu zituen. Jaka jantzi zuen. Egoki zitzaiola ikusi zuen. Berriro altxatu zen; oinutsik zebilen. Galtza barruan sartu zuen alkandora. Makurtu zen. Oinetakoak ohearen azpian zeudela ikusi zuen. Are gehiago makurtu, eskuin eskua luzatu eta zapatak hartu zituen. Beltzak ziren; zuriak, ordea, barruan zeuzkaten galtzerdiak. Altxatu eta aulkian eseri zen. Galtzerdiak jantzi zituen. Kosta egin zitzaion zapatak janzte, estu geratzen zitzaizkion.

Altxatu zen, mina ematen zioten oinetakoek. Leiho aldera joan zen. Kristalaz beste aldean, burdin hesiak zeudela baieztatu zuen. Harantzago kale bat zabaltzen zen. Iluna zen eta laburra. Bainugelaren ondoan ordura arte ikusi ez zuen ate bat zegoen. Ireki zuen. Korridore bat luzatzen zela ikusi zuen. Hutsik. Sabaian bonbilla bat, hari batetik zintzilik. Hautsez beteta zegoen, eta apenas ezer argitzen zuen. Eskuin

aldean ate gehiago zeuden. Handik kolpe batzuk zetozeala entzun zituen, norbaitek zerbait joka ari balitz bezala; pauso-hotsa ere bai, eta kanta baten doinua. Ezin izan zuen zehaztu zein kanta zen, baina doinuak irribarrea ekarri zion ezpainera. Min hartu zuen. Ezkerraldera jo zuen eta beste ate bat zegoen tokira iritsi zen. Atea handia eta burdinazkoa zen. Ireki zuen. Kalera irten zen. Sakon hartu zuen arnasa.

Estua zen kalea. Alde batean zein bestean solairu bakarreko eraikinak zeuden, aspaldikoak. Begira geratu zitzaion irtendako etxeari. Adreilu gorria eraikusten zuen, alde askotan belztua. Leiho asko zituen arren, kristal gehienak puskatuta ageri ziren. Gizonak mina zuen oraindik begi eta ezpainenetan. Kableak ikusi zituen, elkarren artean nahastuta. Gurutze gorri bat ikusi zuen teilatupean. Uso andana irten zen teilatupe hartatik zalapartaka. Eraikinen beste aldean ezkututzen ikusi zituen. Kaleak atzeko aldean, baso txiki bati ematen zion hasiera. Zuhaitz txikiak ziren. Lurralde misteriotsurako bidea irekitzen zuen. Usoak han galdu ziren, hiriko zuhaitz haien babesean. Koloreari erreparatu zion, berdea zen. Mina zuen belarrietan, gortzeraino ia. Mina zuen eskuin eskuan. Mina zuen aurpegi osoan. Odola atera zitzaion tutua haragian sartuta egon zen puntuan.

Aurrera jo zuen. Bide-gurutze batera iritsi zen. Une batez gelditu zen, atsedean hartzera eta arnasa

berritzera. Bazter batean zein bestean, zuhaizka eta belar kaxkar eta usain gogorreko batzuk ageri ziren. Bere aurrean bide bat irteten zen behera, espaloiak alboetan, asfaltoa erdian.

Bideari ekin zion berriro. Tren gorri bat ikusi zuen tunel baten gainetik igarotzen. Tren-hotsak min handiagoa eman zion belarrietan. Gelditu behar izan zuen. Tunela igaro eta plaza batera iritsi zen. Etxe txiki ilun batzuk zabaltzen ziren han-hemenka. Tartean parke bat, zuhaitz mehe eta iharrak, puskatutako banku batzuk. Neska-mutilak zeuden toki hartan, botila handietatik edaten. Inguruko gristasun hartan, alaiak eta ñabarrak ziren haien jantzien koloreak. Irribarrea erakutsi nahi izan zien neska-mutilei. Min hartu zuen, ordea; mina, ezpain-zantzoetan. Irribarrea berritu zuen; are min handiagoa jaitsi zitzaion ezpain menditik behera. Neska-mutilek burlaz eta jakin-minez begiratu zioten.

—Nondik atera ote da mamutzar hori? —esan zuen mutil batek.

Aldamenean zituen neska-mutilek barre egitea lortu zuen.

Hitzak esan zituen mutilari begira geratu zitzaien gizona. Uztaia zuen ezkerreko belarrarian, eta orratz moduko bat goiko ezpainari josita.

—Nondik atera zara, zein zirkotatik egin duzu ihes? —galdetu zion lehenago hitz egin zuen mutilak—. Ba al dakizu non zauden?

Ez zuen erantzun. Neska-mutilei begira geratu zitzaien, zeri edo nori begira zegoen jakin gabe. Mutila hurbildu zitzaion.

—Nor zara?

Urduri jarri zen, ezin zuelako erantzun. Mutilari begiratu zion. Argala zen, luzea eta ile beltza zuen. Eskuak zabaldu zituen; begiak itxi zituen. Mutilak jaka-hegaletik heldu eta bultza egin zion. Oihala urratu zion, bizkarraldean. Pospolo bat atera zuen, ilea erretzera zihoakion. Gizonak mina sentitu zuen buruan. Min zorrotza zen. Begiak zabaldu zituen; eskuak itxi zituen. Eskuin ukabilaz jo zuen mutila aurpegian. Behera egin zuen hark.

—Deabruaren barrabilak! —egin zuen oihu—. Deabruaren barrabilak!

Mutilla altxatu eta, begiak sutan, lasterka joan zen beste neska-mutilengana. Haiek lureko harriak hartu eta gizonari botaka hasi ziren. Harri batek masailean jo zuen gizona. Mina hartu zuen. Ez zuen ezer egin harri-euri hartatik babesteko. Beste harri batek bekokian jo zuen eta dezenteko zuloa egin zion. Mina sentitu zuen bekokian. Ez zuen jakin odola ateratzen ote zitzaion. Lurrera erori zen, ahoz gora. Dena zuri egin zitzaion, zuri lasai eta lausoa. Ezin zuen ezer zehaztu zuritasunean. Sirena-hotsa entzun zuen, urrunean. Begiak ireki zituen. Neska txiki baten aurpegia ikusi zuen. Biribila eta gorria zen. Esku mehe bat eskaintzen zion.

—Altxa zaitez!

Eskua luzatu zuen. Neskak eskua hartu eta altxatzen lagundu zion. Mina sentitzen zuen gorputz osoan. Eskua eraman zuen burura, odola isurtzen zitzaion eta odolez zikindu zitzaizkion hatzak. Bat ahora eraman zuen. Beroa zen, zapora gozoa. Sirena-hotsa hurbiltzen ari zitzaien; gero eta zorrotzagoa zen doinua. Eskuak belarrietara joan zitzaizkion. Ez zuen lortu soinu hura kentzea, belarrietan geratu zitzaion itsatsita bezala.

–Joan behar dugu!

Neska txikiak eskutik helduta eraman zuen gizona. Kale estu batean sartu ziren, etxe artetik eta itzalpean ibilita. Gero, arkupe batetik zehar jo zuten. Ilun samar zegoen. Halako batean ate beltz bat ireki eta barrura sartu ziren, kriskitin hotsa eraginez. Neska txikiak argia piztu zuen. Gela batera sartu ziren.

–Geratu hemen!

Han geratu zen geldi, aulki batean eserita. Gela txikia eta txukuna zela ohartu zen. Neska txikiaren ahotsa entzun zuen.

–Ez gara asko berandutu!

Neskak gizon txiki, flako eta adineko bat zuen ondoan. Neskak eskua eman zion eta altxatzen lagundu. Adineko gizonak gidatu zituen biak, beste gela bateraino. Hura zuria zen eta aulkiz eta ispiluz beteta zegoen. Arasetan botila txikiak eta bizarra egiteko tresnak pilatzen ziren. Usain gozoa zegoen alde guztietan, usain barnerakoia guztiz. Aulki birakor

batean eserarazi zuten. Adineko gizonak ispiluaren aurrean ipini zuen. Jaka eta alkandora kendu zizkion. Berak begiak itxi zituen.

—Ekarri ontzi garbi bat, ura eta zapia, Venezia —esan zion adineko gizonak neska txikiari.

—Bai, aitona.

Uraren soinua entzun zuen. Venezia deitzen zen, beraz, neska txikia. Ura sentitu zuen gero bekokian eta masailetan. Urez igurtzi zizkioten sorbaldak eta lepo aldea. Ur hotzak lasaitasuna ekarri zion, biguntasanarekin batera, bazihoan sentipena. Venezia ere izen biguna eta urezkoa zen. Halako batean, ordea, itomena etorri zitzaion. Begiak ireki zituen, ispiluaren aurrean.

Aurpegia garbia zuen. Tanta finak isurtzen zitzazkion. Lehengo orbainez gainera, zauri-arrasto berriak han zeuden, bide erakusle. Begiak itxi zituen. Isiltasuna ez zen berritu, loditu baizik. Begiak ireki zituen. Adineko gizonarenak ikusi zituen berari begira. Begi hanpatuak ziren.

—Zer egin dizute aurpegian? —entzun zuen, baina ez zuen ulertu zer esan nahi zioten. Ez zuen erantzun. Begiak itxi zituen.

—Eraman ontzia, eta toalla lehorra ekarri, Venezia —esan zion neska txikiari—. Eta bendak eta alko-hola.

—Bai, aitona.

Toalla ipini zioten aurpegiaren gainean. Aitonak eskuak alkoholetan busti eta ilea hartu zion bere

eskuetan. Igurtzika hasi zitzaion, oso leun. Hatzak sentitu zituen ile gorrian sartzen eta irteten. Buruari joaten utzi zion, uretan balego bezala. Ahoa lehorra zuen. Aitonak, gero, aurpegia igurtzi zion. Zauri berriek erre egiten zuten. Toalla kendu zioten aurpegitik. Gizonak begiak ireki zituen. Artean ilearen gorritasuna ispiluan zegoen, ez zen inora joan.

Ondoan zeukan Venezia.

–Zer moduz? –galdetu zion neskak.

Ahoa zabaldu zuen, baina handik ez zen hitzik atera.

–Oheraino eraman behar dugu –esan zuen aitonak.

Neska txikiak eskutik heldu zion. Aitonak gidatu zituen biak logelaraino. Ilunpean zegoen. Ohearen ertzean eserarazi zuten.

–Ekarri pijama garbia!

Neska joan zen. Aitonak galtzak erantzten lagundu zion. Zapatak ohe azpian utzi zituen. Venezia etorri zen, arropa berria aldean. Aitonak pijama janzten lagundu zion.

–Lo egin behar zenuke! –esan zion Veneziak.

Gizonak neska txikiari begiratu zion. Ohea zabaldu zioten. Gizona barrura sartu zen. Gorputza ezker aldera jiratu zuen eta kiribildu zen, umea balitz bezala. Aitonak gizonari erantzitako galtzak jaso zituen. Usaindu zuen. Nazka-keinua egin zuen.

–Arropa hau botatzeko dago.

–Berria ematen du.



–Kiratsa dario!

–Dutxa batek ere ez dio kalterik egingo.

Aitona eta Venezia logelatik atera ziren.